

## Zer da normalkuntza?

Normalizazioaren helburua erabilera hedatzea da. Hori hezkuntza, politika eta kulturaren bitartez ematen den berrantolaketa prozesua da. Erabileraren hedapena honako lau xede hauek jorratuz egiten da:

1. Hiztun kopurua haztea.
2. Erabileraren maiztasuna handitzea.
3. Erabilera eremu eta funtzio anitzetara hedatzea.
4. Hizkuntza minorizatuaren presentzia areagotzen lagunduko duten erabilera- arau adostuak indarrean jartzea.

Normalizazio xedeak elkarri lotu eta elkarren menpeko diren bi prozesu hartzen ditu bere baitan:

1. Hizkuntzaren estandarizazioa, kodifikazioa, normatibazioa eta abar. Hau da, hizkuntzaren egitura behar sozial berrietara egokitzen lagunduko duen alderdi linguistiko kulturala.
2. Hizkuntzari dagokion estatusa. Prozesu soziopolitikoa: erabilera handitzea helburu duen izaera politikodun ekimen multzoa.

Aipatutako xede horien lorpenean eragile asko hartu behar dira kontuan. Hala ere, eta hezkuntzari dagokionean, eskola eragile garrantzitsua da. Hizkuntzaren ezagutza, erabilera eta erabiltzeko motibazioa sustatu eta lantzeko funtsezko euskarria da. Ziurrenik, dugun egoeran, normalizaziorako elementurik trinkoenetakoa.

Horretarako, aintzat hartu behar dira eskola-komunitateko eragile guztiak: ikasleak, irakasleak, gurasoak... Horien adostasuna bilatuz, orain arte landutakoa finkatuz, helburu lorgarriak jarritz, urratsez urrats aurrera ekitea dagokio eskolari.

Eskolaren ahalegin horri lagundu, baliabideak eskaini, eskolen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea du helburu Ulibarri Programak.

## Antolamendua

Ikastetxe bakoitzaren barne-koordinazioa eta programaren baitako ikastetxeen arteko koordinazioa eman dadin, honako antolamendua du Ulibarrik:

- **Ikastetxeko Hizkuntz Normalkuntzako Arduradun Teknikoa (HNAT)** eta ikastetxeko Normakuntza Batzordea (**HNB**): Ikastetxeko Plana koordinatu eta dinamizatzea da bi hauen ardura.
- **Gunea**: Eskualdeko ikastetxeetako HNATak biltzen dira gunean. Gune horietan azpiguneak izan daitezke kopuruak edo helburuak horretara behartuta. Gune horien koordinazio eta dinamizazio lanak Berritzeguneko Hizkuntz Normalkuntzako Teknikariak- HNTak hartzen ditu bere gain. Guneari HNATen prestakuntza-helburua ere ezarri zaio. Gunea, gutxi gora behera, hilean behin biltzen da. Guneak edo mintegiak Berritzeguneka daude sortuta. Kasu batzuetan Berritzegune batzuk azpi-guneak ere badituzte ikasketa mailen arabera. Ikastoletan Euskaraz Bizi Programa daramaten ikastetxeek aparteko azpi-guneak osatzen dituzte.
- **HNATen prestakuntza**: Ikasturtero, hasieran, HNT eta HNATentzat prestakuntza saioak antolatzen dira.
- **Koordinazioa eta gidaritza**: Funtsezko elementua da koordinazioa guneetako eta teknikarien irizpideak bateratzeko eta elkarlana bermatzeko. Estrategia bateratuak finkatzeaz gain, HNTz osatutako lan-taldeak antolatzen dira, eta prestakuntza bideratzen da.

- 18 Berritzeguneetan dago HN aholkulari bana eta Berritzegune Nagusian hauek guztiak koordinatzen dituen HN Koordinatzailea. Hemeretzi aholkulari hauek Euskara Zerbitzuko NOlega teknikariek batera, programaren gidaritza operatiboa osatzen dute.
- **Lan-Taldeak:** Programari sortzen zaizkion erronkei eta beharrei aurre egiteko, dugun baliabide nagusia lan-taldea da. Teknikariz, adituz, aholkulariz edota irakaslez osatutako lan-taldeak dira, eta helburu jakin bati erantzuteko sortzen dira.
- **NOLEGA programa:** Euskara Zerbitzuko atal honi dagokio programaren kudeaketa. Horretarako, aholku-elkarteekin harremana du. HNT eta HNarekin ere etengabeko harremanak ditu NOLEGA atalak. Hizkuntz Normalkuntza eta oro har NOLEGA programako bestelako gai guztiak izaten dira aztergai koordinazio eta informazio saio hauetan.
- **Jarraipen eta Ebazpen batzordea:** Programa honetan sartuta dauden ikastetxeen jarraipena egitea da batzorde honen helburu nagusia. Bertan aztertzen da ikastetxeen jarraipena edota programa uztea. Batzorde honi dagokio gaiaren inguruko erabaki-proposamenak sailburuordeari helaraztea.
- **Diagnosia eta Lau Ikasturteko Proiektua (HNP):** Ikastetxeek 4 urtez behin hizkuntza-egoera aztertuko dute Branka tresna erabiliz, eta horretan oinarrituta lau ikasturterako proiektua eratuko dute.
- **Ikasturteko Plana (IP) eta Oroitidazkia (IM):** Ikasturtero, ikasturte horretan jarduteko plan zehatza eratuko dute, eta ikasturtearen amaieran egindakoaren oroitidazkia osatuko dute.
- **Ebaluazioa:** Ikastetxeen eta Ulibarri Programaren kanpoko ebaluazioak egiten dira, aldian-aldian.
- **Bildumak eta materialgintza:** Programaren baitan eta programaren ekimenez sortu eta eratzten diren materialak eta bildumak argitara ematen dira edota [www.ulibbarri.info](http://www.ulibbarri.info) helbidean jartzen dira partaideen eskura.

## Hizkuntza Normalkuntza Proiektuak. Hainbat ezaugarri

Ikasleak soilik ez dira HNP helburu. Ikastetxeko beste esparruak ere oso kontuan hartu behar dira: irakasleak, gurasoak, administrazioko langileak... guztiak barnebiltzen dituen plan osatua.

Herriko erakundeekiko elkarlanean, osagarritasunen jardutea behar beharrezkoa da eraginkortasuna lortu nahi bada.

Plana eratzean oso kontuan hartzekoak dira, besteak beste: metodologia, irakasleen prestakuntza, testuinguru soziolinguistikoa, ikastetxearen abiapuntua eta antzeko aldagaiak.

Ikastetxearen normalkuntza lanean oso kontuan hartzekoak dira honakoak:

- Normalkuntza proiektuen motorra ikastetxean bertan dago, hau da, ikastetxea da bere proiektuaren arduradun nagusia eta bere ibilbidearen erantzule.
- Ikastetxeko motor hori kanpoan ere elikatu egin behar da. Ikastetxearen eginahal horretan lagungarri eta osagarri gertatu behar dute Ulibarriren baliabideak: guneko bilerak, diagnosirako tresnak, trukerako foroak, prestakuntza saioak etab.

- Ikastetxeak eta inguruneak elkar elikatu behar dute. Normalkuntzan diharduten beste erakunde eta eragileekin elkarren arteko lana eta osagarritasuna aintzat hartu behar dugu: udalak, euskara elkarteak...

## Proiektua eta Plana eguneratzea

HNP abiapuntua baldin bada ere, plan guztietan bezala honetan ere berrikustea eta egokitzea komeni da. Lan hori egiteko oster, Ulibarri Programan bada zenbait tresna:

- HNPren eguneratzea: 4 urtean behin egin beharrekoa.
- Urteko Plana: Proiektu orokorra eta memorian oinarrituz osatzen den urteko plana.
- Urteko Memoria: Ikasturte bukaerako hausnarketa txostena.